

DBBH

GEHIAGO JAKITEKO

Zeure Ikastetxeko Orientabide Departamentua

Hezkuntza Departamentua

Guraso eta Ikasleentzako Informazio eta Aholkularitza Bulegoa

Tel: 848 426 617

<http://educacion.pnte.cfnavarra.es>

e-mail: informa@cfnavarra.es

Ebaluazioa

Ebaluazioaren bidez irakasle taldeak zure bilakaera balioesten du: zenbat ezagupen zeureganatu dituzun irakasgai bakoitzean eta zenbateraino iritsi dituzun berariazko helburuak eta oinarriko gaitasunak.

Ikasturtean zehar hiru ebaluazio izanen dira, hiruhilekoan bat. Horrez gain, hasiera ebaluazio bat izanen da, ikasketa problemarik izaten bada hari antz emateko eta lehenbailehen erremedio jartzeko.

Ebaluazioa irakasgai bakoitzeko kalifikazio batean gauzatzen da. **Kalifikazio eskala** honako hau da:

EN Ez-nahikoa: 1, 2, 3 eta 4

NA Nahikoa: 5

ON Ongi: 6

OO Oso ongi: 7 eta 8

BI Bikain: 9 eta 10

Ebaluazioaren emaitza kalifikazio boletinaren bidez ematen zaio aditzera familiari. Bertan kalifikazioak ageri dira letrarekin eta zenbakiarekin idatziak.

Azken ebaluazioa ebaluazio prozesu etengabearen emaitza izanen da eta bertan azken kalifikazioak erabakiko dira, Azken ebaluazioak ikasturte bakoitza amaitzen denean eginen dira, ekainean.

Iraileko azterketak: irakasgai bat gaingitu gabe utzi baduzu, beste aukera bat duzu iraileko azterketetan, ikasturte berria hasi aurretik.

Hurrengo kurtzora igarotzea eta kurtso berean gelditzea

Azken ebaluazioek balio dute irakasle taldeak zure jakintza maila eta bilakaera balioetsi ondoren erabakia har dezan.

Kontuan hartu behar duzu bi irakasgai baino gehiago gaingitu gabe utzi badituzu **ezin igaroko zarela** hurrengo kurtzora.

Bi irakasgai baino gehiago gaingitu gabe utzi badituzu kurtso osoa **errepikatu** beharko duzu.

Kurtso bakoitza behin bakarrik errepikatu ahalko duzu eta gehienez bi aldiz etapa bararen barrenean.

Salbuespenezko kasuetan irakasle taldeak erabaki dezake hiru irakasgairekin igarotzea.

Irakasgai gaingitu gabekin igarotzen bazara, hurrengo kurtsoan gaingitu beharko dituzu.

Titulazioa

DBHko 4. kurtsoa bukatu ondoren, etapako helburuak eta oinarriko gaitasunak erdietsi badituzu, **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua** jasoko duzu.

Titulu horrek balioko dizu Batxilergoa edo Erdi Mailako Lanbide Heziketako Zikloak ikasten hasteko.

Eta DBH bukatu ondoren, zer egin dezaket?

Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortu baduzu

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK
Bi urteko lanbide hezkietara da, lanbide adar jakin batera orientatua. Harekin, aukeratu duzun espazialitateko **teknikari** titulua eskuratuko duzu.

BATXILERGOA

Batxilergoa gaingituz gero, goi mailako ikasketak egiteko aukera izanen duzu, bai unibertsitatean, bai lanbide heziketan eta Arte plastikoak eta diseinuan

Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortu EZ baduzu

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

Programa horiek urte batekoak edo bikoak dira eta oinarriko prestakuntza eta lanbide bati begira orientabide jakina eskaintzen dizute. Programa hauek dauzkazu aukeratzeko, besteak beste, loregintza, igeltserotza, elektrizitatea, ile-apainketa, ostalaritza, osasuna, automozioa eta abar. Zure eskura daude, zuk zein duzun gustuko, huraxe aukertzeko.

D.L. NA - 1548/2008

DBBH

Beste urrats bat

Lehen Hezkuntza bukatu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egiten hasiko zara. Osotara, lau (4) kurtso ditu

DBH hezkuntza sisteman



Hizkuntza ereduak

DBH eredu hauetan ikas dezakezu:

- **G eredu**a (gaztelaniaz)
- **D eredu**a (euskaraz)
- **A eredu**a (gaztelaniaz, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakazgaia barne)

Irakasgaiak eta ordutegiak

Asteko eskola ordutegia hau da: **29** irakaste saio eta tutoretza saio bat.

Esan dugu DBHk lau kurtso dituela; kurtso horietan irakasgai batzuk nahitaezkoak dira eta beste batzuk aukerakoak.

G eredua

26 + 3 + 1

ordu derrigorrezko irakasgaietarako ordu aukerako irakasgaietarako tutoretza ordua

D eredua

27 + 2 + 1

ordu derrigorrezko irakasgaietarako ordu aukerako irakasgaietarako tutoretza ordua

- G eta A ereduak batera ematen dituzten ikastetxeetan, A ereduko Euskara irakazgaia aukerako ikasgaiari dagozkion orduetan ematen da.
- Ikastetxe batean D ereduarekin batera A eredu ematen denean, A eredu horrek D ereduaren ordu antolamendu berbera izanen du.

A eredua

26 + 3 + 1

ordu derrigorrezko irakasgaietarako ordu euskara eta literaturarako tutoretza ordua

A eredua

27 + 2 + 1

ordu derrigorrezko irakasgaietarako ordu aukerako irakasgaietarako tutoretza ordua

Oharra: datu hauek lehen hiru kurtsoetarako balio dute. 4. kurtsoko ordutegirako, aldiz, ikus hurrengo laukia.

| NAHITAEZKO IRAKASGAIK | G eredu Gaztelania | | | | D eredu Euskara | | | |
|---|-----------------------|----|----|----|--------------------|----|----|----|
| | 1. | 2. | 3. | 4. | 1. | 2. | 3. | 4. |
| Natur Zientziak, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika | 3 | 3 | 4 | | 3 | 3 | 3 | |
| Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| Matematika* | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 3 |
| Gaztelania eta Literatura | 4 | 4 | 4 | 4 | 3 | 3 | 3 | 4 |
| Euskara eta Literatura (A eta D ereduak) | | | | | 3 | 3 | 3 | 4 |
| Atzerriko Hizkuntza | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| Gorputz Hezkuntza | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| Teknologia | 2 | 3 | | | 2 | 2 | | |
| Musika | 3 | | 2 | | 2 | | 2 | |
| Plastika eta Ikus-hezkuntza | | 2 | 2 | | 2 | 2 | | |
| Erljioa / Hezkuntza arreta ** | 2 | 2 | 1 | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 |
| Hezkuntza etiko-zibikoa | | | 2 | | | | 2 | |
| Hiritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza | | | 1 | | | | 1 | |
| AUKERAKO | 3 | 3 | 3 | | 2 | 2 | 2 | |
| CURRICULUM AUKERA + AUKERAKO | | | | 10 | | | 7 | |
| TUTORETZA | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| ASTEKO ORDUAK GUZTIRA | 30 | | | | | | | |

* Ikastetxeek 4. kurtsoan Matematika irakazgaia bi modutan eman dezakete: Matematika A eta Matematika B. Horietako bakoitza ondorengo ikasketa mota ezberdinetara bideraturik dago. Komeni da zeure ikastetxean galdetzea eta horren gaineko informazio zabalagoa jasotzea.

** Erljioa arloa (konfesionala edo Erljioen historia eta kultura) nahitaezkoa da zeure gurasoek edo tutoreek hala eskatzen badute. Horrelakorik egiten ez badute, Behar bezalako hezkuntza arreta hartu beharko duzu.

Aukerako irakasgaiak eta curriculum aukerak

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek, nahitaezko irakasgaien gain, beste irakasgai batzuk eskaintzen dituzte. **Aukerako irakasgaiak** dira; **1. 2. eta 3. kurtsoetan bakarrik aukera dezakezu**, eta **4.ean**, aldiz, aukerako irakasgai batz gain, **curriculum** aukera bat ere egin behar duzu.

Lehen kurtsoa

Hauetatik bat aukeratzeko:

- Atzerriko Bigarren Hizkuntza
- Oinarrizko Matematika
- Literatur sorkuntza

Bigarren kurtsoa

Hauetatik bat aukeratzeko:

- Atzerriko Bigarren Hizkuntza
- Matematika sakontzen
- Oinarrizko hizkuntza trebetasunak

Hirugarren kurtsoa

Hauetatik bat aukeratzeko:

- Atzerriko Bigarren Hizkuntza
- Kultura klasikoa
- Ikastetxeak diseinatutako irakasgai bat

Laugarren kurtsoa

CURRICULUM AUKERAK ETA HAIEN IRAKASGAIK*

Aukeratu curriculum aukera bat eta haren irakasgaia:

- **Zientzia aukera**
- Fisika eta Kimika
- **Giza jakintza aukera**
- Latina
- **Teknologia aukera**
- Teknologia

CURRICULUM AUKERA OSATZEN DUTEN IRAKASGAIK

Bi aukeratu:

- Biologia eta geologia
- Fisika eta Kimika
- Latina
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza
- Informatika
- Plastika eta Ikus Hezkuntza
- Musika
- Teknologia

AUKERAKO IRAKASGAIK (G eredu)

Bat aukeratu:

- Matematikan sakontzen
- Fisika eta Kimikan sakontzen
- Literatura Unibertsala
- Geografia ekonomikoa
- Lanbide hastapena-helduarora igarotzea
- Ikastetxeak diseinatutako irakazgaia
- Curriculum aukeran hartu ez diren irakasgaiak

*Oharra: Ikastetxeek zilegi dute foleito honetakoaz beste curriculum aukera bat eskaintzea.

G-A ereduko ikastetxeetan A ereduko ikasleek aukerako irakazgaiari dagozkion orduetan ematen dute Euskal Hizkuntza eta Literatura irakazgaia.